



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Dokumentu mota / Tipo de documento: PROPOSAMEN EBAZPENAK
Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA
Proposatzailea / Proponente: BERROJALBIZ, ITXASO (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)
Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario EA-NV/ES-SV
Data / Fecha

Espediente zb / N° de expediente 12\11\08\00\00003

Ekimenaren izenburua

Osoko Bilkuran eztabaida monografikoa egiteko eskaera, Ukrainako gerraren ondorioen aurrean EAeko ekonomia eta pertsonak babesteko Jaurlaritzak, bere eskuduntzen esparruan, hartu beharreko premiazko neurriei buruz

Título de la iniciativa:

Solicitud de debate monográfico en Pleno sobre las medidas urgentes que debe adoptar el Gobierno, en el ámbito de sus competencias, para proteger la economía y a las personas de la CAPV ante las consecuencias de la guerra de Ucrania

EA-NV

ES-SV





1. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen defentsaren aldeko konpromisoa, herrien arteko bizikidetzaren harremanen oinarri izan behar duten funtsezko premisa gisa, bai eta Errusiak Ukraina alde bakarretik inbaditzera kondenatzen duela ere. Indarkeria erabiltzea eta bizitzeko eskubidearen aurka egitea kondenagarriak dira beti, edozein kasutan eta edozein egoeratan.

Propuesta de resolución Nº 1.

El Parlamento Vasco reafirma su compromiso con la defensa de los derechos humanos y el derecho internacional como premisas fundamentales sobre la que se deben basar las relaciones de convivencia entre los pueblos, así como su condena más rotunda a la invasión unilateral de Ucrania por parte de Rusia. La utilización de la violencia y atentar contra el derecho a la vida son condenables siempre, en cualquier caso y en cualquier situación.





2. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak elkartasuna adierazten die Errusiaren inbasioaren ondorioengatik Ukrainatik ihes egin behar izan duten errefuxiatuei.

Propuesta de resolución N° 2.

El Parlamento Vasco manifiesta su solidaridad con las personas refugiadas que han tenido que huir de Ucrania por los efectos de la invasión de Rusia.





3. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadira iristen diren pertsona ukrainarrak hartzeko eta integratzeko programak eta zerbitzuak indartzen jarrai dezala.

Propuesta de resolución N° 3.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe reforzando los distintos programas y servicios para la acogida e integración de las personas ucranianas que llegan a Euskadi.





4. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala garatzen eta eguneratzen Ukraina inbaditzeagatik lekualdatutako pertsonak hartzeko abian jarritako premiazko kontingentzia-plana.

Propuesta de resolución N° 4.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno vasco a que continúe desarrollando y actualizando el Plan de contingencia urgente puesto en marcha para la acogida de personas desplazadas por causa de la invasión de Ucrania





5. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Estatuko harrera-sistema berrikusteko eskatzen dio Estatuko Gobernuari, Euskadira iristen diren ukrainarren familia-loturak eta lotura pertsonalak errespetatu daitezzen.

Propuesta de resolución N° 5.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno del Estado a que revise el Sistema estatal de acogida, con el objetivo de que se respeten los vínculos familiares y personales de las personas ucranianas que llegan a Euskadi.





6. Ebazpen proposamena

Euskadira iristen diren ukrainar gehienak haurrak dituzten emakumeak direnez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala emakumeen eta adingabeen salerosketa prebenitzeko eta horri aurre egiteko zerbitzuak eta baliabideak.

Propuesta de resolución N° 6.

Dado que la gran mayoría de personas ucranianas que llegan a Euskadi son mujeres con niños y niñas, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que refuerce los servicios y recursos para prevenir y combatir la trata de mujeres y menores.





7. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gaur egun indarrean dauden gizarte-laguntzako eta energia-pobrezia murrizteko programak indartzeko, gizarte-erreskaterako funts bat abian jarrita, gizarte-larrialdietarako laguntzak, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen eta etxerik gabekoen gizarteratzea, mendeko adinekoei laguntzeko programak eta pertsona ahulenekiko elkartasun-sareak indartzeko aukera emango duena, "Azken sarea indartzen".

Propuesta de resolución N° 7.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar los programas de apoyo social y de reducción de la pobreza energética actualmente vigentes, con la puesta en marcha de un fondo de rescate social que permita reforzar las ayudas de emergencia social, la integración social de las personas en riesgo de exclusión y las personas sin hogar, los programas de apoyo a personas mayores dependientes y las redes de solidaridad con las personas más vulnerables "Azken sarea indartzen".





8. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio koordinazioaren lidergoari eusteko gainerako euskal erakundeekin eta laguntzeko gaitasuna duten erakundeekin, Ukrainaren aurkako gerraren ondorioei erantzun bateratua eta globala emateko.

Propuesta de resolución N° 8.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que mantenga el liderazgo de la coordinación con el resto de instituciones vascas y entidades con capacidad de ayudar, con el objetivo de dar una respuesta conjunta y global a las consecuencias de la guerra contra Ucrania.





9. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Estatuko Gobernuari eskatzen migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak berehala transferitzeko.

Propuesta de resolución N° 9.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe reclamando al Gobierno del Estado la inmediata transferencia aún pendiente de las funciones y servicios en materia de migración.





10. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala gerrak Ukrainan izan duen bilakaeraren eta horrek gure gizarte- eta ekonomia-sarean izan dituen ondorioen jarraipen estua egiten, zuzenean edo zeharka gatazka horrek eragindako klusterrekin eta eragile ekonomiko eta sozial guztiekin harremanetan egon dadin eta haien egoeraren eta beharren aldizkako azterketa egin dezan.

Propuesta de resolución Nº 10.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe haciendo un estrecho seguimiento de la evolución de la Guerra en Ucrania y de sus consecuencias en nuestro tejido social y económico, estando en contacto con los clúster y todos los agentes económicos y sociales afectados directa o indirectamente por dicho conflicto y realizando un análisis periódico de su situación y necesidades.





11. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio administrazio publikoak energia modu zentralizatuan erosteko ekimen pribatuari laguntzeko neurriak bultza ditzala.

Propuesta de resolución N° 11.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar desde la administración pública medidas de acompañamiento a la iniciativa privada para la compra centralizada de energía.





12. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Estatuko Gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren bultza eta gauza ditzala PERTEak eta Europako funtsen aplikazioa, bereziki mugikortasun iraunkorarekin eta energia-eraldaketarekin lotutako proiektu estrategikoetan.

Propuesta de resolución N° 12.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno del Estado a impulsar y materializar con la máxima celeridad los PERTEs y la aplicación de los fondos europeos, especialmente en aquellos proyectos estratégicos relacionados con la movilidad sostenible y la transformación energética.





13. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio enpresen lehiakortasuna areagotzen duten politikak indartzen jarrai dezala, hala nola eraginkortasun energetikorako laguntzak edo I+G publiko eta pribaturako laguntzak.

Propuesta de resolución N° 13.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que siga reforzando las políticas que aumentan la competitividad de las empresas, tales como las ayudas a la eficiencia energética o el apoyo a la I+D pública y privada.





14. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak adierazi du beharrezkoa dela etxeetan eta enpresetan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak sustatzea, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu dio energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, ikerketa energetikoaren euskal estrategian sakondu dezala, neurriak garatzen jarrai dezala eraginkortasun energetikoa handitzeko eta ahultasun energetikoa murrizteko, pobrezia energetikoko egoerak saihestuz, eta helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren tresna guztiak bultzatzea.

Propuesta de resolución N° 14.

El Parlamento Vasco manifiesta la necesidad de incentivar las medidas de ahorro y eficiencia energética en hogares y empresas e insta al Gobierno Vasco a que impulse el uso de energías renovables, profundice en la estrategia vasca de investigación energética, continúe desarrollando medidas con objeto de aumentar la eficiencia energética y reducir la vulnerabilidad energética evitando así las situaciones de pobreza energética, e impulse todas las herramientas necesarias que busquen tales finalidades.





15. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio garapen jasangarriaren helburuekiko konpromisoari eusteko eta energia-eredu berri baten lorpena bizkortzeko, honako hauen aldeko apustua egiteko: erregai fosilen deslotura, 2050ean berotegi-efektuko gas-emisioen neutraltasuna eta Euskadi 2030 estrategia energetikoaren garapena, ekonomia zirkularraren estrategia eta klima-aldaketaren aurkako estrategia, Euskadi karbonoan hartutako konpromisoekin Euskadi herrialde neutro bihurtzeko.

Propuesta de resolución N° 15.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener su compromiso con los objetivos de desarrollo sostenible y a acelerar la consecución de un nuevo modelo energético que apueste por: la desvinculación de los combustibles fósiles, la neutralidad de las emisiones de gas de efecto invernadero en el horizonte del 2050 y el desarrollo de la estrategia energética Euskadi 2030, la estrategia de economía circular y la estrategia contra el cambio climático para hacer de Euskadi un País neutro en carbono, de conformidad con los compromisos asumidos en la COP 26 celebrada en Escocia.





16. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, bere eskumenen esparruan, ekonomia-, finantza- eta zerga-arloko neurri-sorta osagarri bat gara dezala, ekonomia dinamizatzeko, enpleguari eusteko eta pertsona eta familia ahulenei laguntzeko.

Propuesta de resolución N° 16.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el ámbito de sus competencias, desarrolle de forma complementaria un paquete de medidas de índole económica, financiera y fiscal para así dinamizar la economía, mantener el empleo y apoyar a las personas y familias más vulnerables.





17. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala 2022-2024 aldirako Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana gauzatzea, foru-aldundiekin batera onartu berri dena, sektore publikoak kanpoko energia-mendekotasuna murrizteko, gure produkzio-sarea babesteko eta enplegua babesteko helburuei laguntzeko beste modu baten gisa.

Propuesta de resolución N° 17.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que impulse la materialización del Plan de Inversiones Estratégicas de Euskadi 2022-2024, recientemente aprobado conjuntamente con las Diputaciones Forales, como otra forma de contribución del sector público a los objetivos de reducir la dependencia energética del exterior, proteger nuestro tejido productivo y salvaguardar el empleo.





18. Ebazpen proposamena

COVID-19aren krisiak eta Ukrainako egungo gerrak agerian utzi dutenez jarduera-sektoreek lehengaiak beste merkatu batzuetatik lortzeko duten mendekotasuna, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio nazioartean lankidetzaren publiko-pribatua indartzeko, lehengaiak taldekatutako erosketa-zentrala bultzatzeko alternatibak bilatze aldera.

Propuesta de resolución N° 18.

En tanto que la crisis de la Covid-19 y la actual guerra de Ucrania han puesto en evidencia la dependencia que los distintos sectores de actividad tienen para obtener materias primas de otros mercados, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar la colaboración público-privada en el ámbito internacional en aras de buscar alternativas para impulsar una central de compras agrupada de materias primas.





19. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskal enpresa-sarearen finantzaketa eta likidezia errazteko baliabideak zabal ditzala, eta finantzaketa-ildo espezifiko berriak bidera ditzala.

Propuesta de resolución N° 19.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que amplíe los recursos destinados a facilitar la financiación y liquidez del tejido empresarial vasco, e instrumente nuevas líneas específicas de financiación.





20. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko parke teknologikoetan eta industrialdeetan kokatutako enpresei alokairuen ordainketa atzeratzeko neurriak ezar ditzala.

Propuesta de resolución N° 20.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a implementar medidas de aplazamiento en el pago de los alquileres por parte de las empresas radicadas en los parques tecnológicos y polígonos industriales de titularidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.





21. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio dagoeneko indarrean dauden programak indartu ditzala eta diru-laguntzen programa berriak antola ditzala, beren jarduera dibertsifikatzeko jarduerak egiten dituzten eta/edo beren gaitasunak Euskal Autonomia Erkidegoan birlokalizatzeko prozesuak gauzatzen dituzten enpresentzat.

Propuesta de resolución N° 21.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar los programas ya vigentes y a instrumentar nuevos programas subvencionales destinados a las empresas que realicen actuaciones de diversificación de su actividad y/o lleven a cabo procesos de relocalización de sus capacidades en la Comunidad Autónoma de Euskadi.





22. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio industria-azpisektoreari laguntzeko neurri osagarriak har ditzala, bere jarduera garatzeko gasaren erabilera intentsiboa behar badu.

Propuesta de resolución N° 22.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que instrumente medidas complementarias de apoyo al subsector industrial quien para el desarrollo de su actividad precise de un uso intensivo del gas.





23. Ebazpen proposamena

Europar Batasuneko estatu-laguntzen aldi baterako esparruak Ukrainaren inbasioaren inpaktu ekonomikoek eragindako enpresei laguntzea ahalbidetzen duen aukerak kontuan hartuta, Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela zuzenean ukitutako enpresei laguntzak emateko berariazko eta aldi baterako programa bat proposatzea, arreta berezia jarriz nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreei, bai eta Errusiarekiko harreman ekonomiko eta komertzialak deuseztatzeko hartutako neurri murriztaileek zuzenean eragiten dietenei ere.

Propuesta de resolución N° 23.

Atendiendo a las posibilidades que permite el Marco temporal de Ayudas estatales de la Unión Europea, que facilita el apoyo a las empresas afectadas por los impactos económicos de la invasión de Ucrania, el Parlamento manifiesta la necesidad de plantear un programa específico y temporal de ayudas a las empresas directamente afectadas, con especial atención a los sectores agrícola, ganadero y de pesca, así como a las directamente afectadas por las medidas restrictivas adoptadas para rescindir las relaciones económicas y comerciales con Rusia.





24. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin koordinatuta, prestakuntza-programak ezar edo indar ditzala, Ukrainaren inbasioaren ondorioz lekualdatutako ikasleei eta, bereziki, Euskadin ikasten ari diren Erasmus ikasleei unibertsitate-ikasketak jarraitzeko aukera emateko.

Propuesta de resolución N° 24.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en coordinación con las universidades del sistema universitario vasco, establezca o refuerce programas formativos para habilitar la posibilidad de continuar estudios universitarios a alumnado desplazado por la invasión de Ucrania y en particular al alumnado Erasmus que están cursando estudios en Euskadi.





25. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin eta BERC zentroekin koordinatuta, ikerkuntza-arloko ekintzak ezar edo indar ditzala, Ukrainan gerrak mugitutako ikertzaileak sar daitezen. Eta, bereziki, Kanarietako errefuxiatuen etorreraren aurrean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio Basque Research & Technology Alliance (BRTA) partzuergoa osatzen duten zentro teknologikoetan eta IZKetan Ukrainako ikertzaileei eta teknologoei lantokiak ematen jarrai dezala, eta praktika hori eremu pribatuan ere bultzatzea.

Propuesta de resolución N° 25.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en coordinación con las universidades del sistema universitario vasco y los centros BERC, establezcan o refuercen acciones en el ámbito de la investigación que posibiliten la incorporación de personal investigador desplazado por la guerra en Ucrania. Y, particularmente, ante la llegada de refugiadas ucranianas, se insta al Gobierno Vasco a seguir proporcionando lugares de trabajo a las investigadoras y tecnólogas ucranianas en los centros tecnológicos y los CICs que conforman el consorcio Basque Research & Technology Alliance (BRTA), así como a alentar esta práctica también en el ámbito privado.





26. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala Ukrainan gerraren ondorioz gure erkidegora iristen diren adingabe eta gazteei hezkuntza-estaldura eta arreta espezifikoa eman ahal izateko beharrezko mekanismoak, arreta berezia jarritz haien ongizate emozionalean, ezinbesteko faktorea baita hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuari arrakasta-bermeekin ekin ahal izateko, familiekin eta gizarte-zerbitzuekin koordinatuta.

Propuesta de resolución N° 26.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar los mecanismos necesarios para poder dar cobertura educativa y una atención específica a las y los menores y jóvenes que llegan a nuestra comunidad desplazados por la guerra en Ucrania, con especial atención a su bienestar emocional, como factor imprescindible para poder abordar el proceso educativo y formativo con garantías de éxito, en coordinación con las familias y los servicios sociales.





27. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari eskatzen dio jarrai dezala eskatzen diren ABEEei buruzko interpretazio-irizpideak aplikatzen, enpresen bideragarritasuna eta enpleguari eustea errazteko Ukrainako gerraren eta Errusiari ezarritako zigorren ondorioz sor daitezkeen egoeretan.

Propuesta de resolución N° 27.

El Parlamento vasco insta al Departamento de Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco a que siga aplicando criterios interpretativos sobre los ERTEs que se soliciten, que faciliten la viabilidad de las empresas y el mantenimiento del empleo en aquellas situaciones que se puedan presentar como consecuencia de la guerra de Ucrania y de las sanciones impuestas a Rusia





28. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Ukrainako gerrak eragindako krisiaren ondorioz enpleguan izandako okertzearen ondorioz aurkez daitezkeen DSBE eta IMV eskaera guztiei erantzuten.

Propuesta de resolución N° 28.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar atendiendo todas las solicitudes de RGI y de IMV que se pudieran presentar como consecuencia de un deterioro en el empleo originado por la crisis derivada de la guerra en Ucrania.





29. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak gizarte-eragileekin etengabeko harremana izateko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari, une bakoitzean enpresek eta sektoreek bizi dituzten zailtasun-egoerak ezagutzeko eta enplegua suntsitzea saihestu eta enpresen bideragarritasuna bermatuko duten irtenbide arin eta eraginkorrak eskaintzeko.

Propuesta de resolución N° 29.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Empleo y Trabajo del Gobierno Vasco a mantener un contacto permanente con los agentes sociales para conocer en cada momento las situaciones de dificultad por las que pasen las empresas y sectores y ofrecer soluciones ágiles y eficaces que eviten la destrucción de empleo y garanticen la viabilidad de las empresas.





30. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio, erakunde humanitarioekiko lankidetzaren bidez, Ukrainatik datozen errefuxiatuei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak eskain diezazkiela, Euskadin dauden bitartean enpleguak bete eta prestakuntza-ikastaro baliagarriak egin ahal izan ditzaten, bai beren herrialdera itzultzen badira, bai hemen geratzen badira.

Propuesta de resolución N° 30.

El Parlamento vasco insta a Lanbide a ofrecer, a través de la colaboración con las organizaciones humanitarias, todos los servicios de los que dispone a las personas refugiadas procedentes de Ucrania, con el fin de que durante su estancia en Euskadi puedan desempeñar empleos y acceder a cursos formativos que les resulten útiles tanto si vuelven a su país como si se quedan aquí.





31. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio egungo egoera ekonomikoaren ondorioz lana gal dezaketen pertsonak sar ditzala AukerabeRRi programan.

Propuesta de resolución N° 31.

El Parlamento vasco insta a Lanbide a incorporar en el programa AukerabeRRi a personas que puedan perder su empleo como consecuencia de la situación económica actual.





32. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laguntza-lerro bat sor dezala Ukrainako gerrak eta Errusiari ezarritako zehapen ekonomikoek zuzenean eragin dieten gizarte-ekonomiako enpresentzat, bai bi herrialdeetan instalazioak eta langileak izateagatik, bai gauzatu ezin izango diren eskaerak egiteko konpromisoa hartzeagatik.

Propuesta de resolución N° 32.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a crear una línea de ayudas destinada a las empresas de economía social que se hayan visto directamente afectadas por la guerra en Ucrania y las sanciones económicas impuestas a Rusia, bien por contar con instalaciones y personas empleadas en ambos países o bien por tener comprometidos pedidos que no se van a poder materializar.





33. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio handitu dezala gizarte-ekintzaitzara bideratutako aurrekontuzuzkidura, Ukrainako gerraren ondorioz kapital-gehikuntzei aurre egin behar dieten lanbazkideentzako eta bazkide kooperatibistentzako laguntza jaso dezan, galerak konpentsatzeagatik, zirkulatuak handitzeagatik edo inbertsio berriak egiteagatik.

Propuesta de resolución N° 33.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a incrementar la dotación presupuestaria destinada al emprendimiento social con objeto de que contemple una ayuda a socios laborales y socios cooperativistas que como consecuencia de la guerra en Ucrania tengan que afrontar ampliaciones de capital a causa de posibles compensaciones de pérdidas, incremento de circulante o nuevas inversiones.





34. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gizarte-ekonomiako enpresa-elkarte eta -taldeentzako laguntza-lerro bat antola dezala, energia berriztagarrien aldeko apustua egiten duten energia-kontsumoko kooperatiben eraketa aztertu eta, hala badagokio, erraztu ahal izan dezaten, eta energia-komunitateak sustatzen eta garatzen jarrai dezan, energia-merkatuan beren helburuak gara ditzaten.

Propuesta de resolución N° 34.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que instrumente una línea de ayudas destinada a las asociaciones y grupos empresariales de la economía social con objeto de que puedan estudiar y, en su caso, vean facilitada la tramitación de la constitución de las cooperativas de consumo energéticas que apuestan por las energías renovables, y a continuar fomentando y desarrollando las comunidades energéticas a fin de que puedan desarrollar sus objetivos en el mercado energético.





35. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari helaraz diezaiola 20.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen osagarriak mantentzeko proposamena

Propuesta de resolución N° 35.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que traslade a la Mesa de Diálogo Social la propuesta de mantener los complementos a las personas acogidas a ERTes con ingresos inferiores a 20.000 euros.





36. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak, Ukrainaren inbasioaren inguruabarrak eta ondorioak kontuan hartuta, bidaiarien garraio publikoan eskumena duten erakunde, administrazio eta entitateei eskatzen die, haien guztien artean koordinatuta, garraio publikoaren sare propioaren tarifen prezioak mantentzea erabaki dezatela, erabiltzaileek zuzenean aurre egin ez diezaioten energiaren kostuen igoerari eta eratorritako inflazio-tasa handiari.

Propuesta de resolución N° 36.

El Parlamento Vasco, teniendo en cuenta las circunstancias y los efectos que se derivan de la invasión de Ucrania, insta a las instituciones, administraciones y entidades con competencia en el transporte público de viajeros, a que, en coordinación entre todas ellas, se acuerde el mantenimiento de los precios de las tarifas de la red propia de transporte público, con el objetivo de que las personas usuarias no afronten de forma directa el incremento de los costos de la energía y la elevada tasa de inflación derivada de los mismos.





37. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, errusiarrek Ukraina inbaditu ondoren beren herrialdetik alde egin behar izan duten iheslari ukrainarrei arreta ematen dieten hirugarren sektoreko erakundeen esku jar ditzan, beharrezko etxebizitzak, erakunde horiek eskatzen dituzten heinean, errefuxiatuen kolektibo horrek Euskadira iritsitakoan beharko dituen bizitegi-premiei erantzuteko.

Propuesta de resolución N° 37.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a programar, para su puesta a disposición de las entidades del tercer sector que atienden a los refugiados ucranianos que como consecuencia de la invasión rusa de Ucrania se han visto obligados a abandonar su país, las viviendas necesarias, según se vayan requiriendo por estas organizaciones, para atender las necesidades habitacionales que este colectivo de refugiados va a requerir una vez hayan llegado a Euskadi.





38. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala gazteentzako alokairu-laguntzen programak (Gaztelagun), hain sentikorra den biztanleriaren sektore horrek aurre egin diezaien Ukrainako energia-krisiaren eta gerraren ondorioz sortzen ari diren ekonomia- eta gizarte-arloko ondorioei.

Propuesta de resolución N° 38.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar los programas de ayudas al alquiler para jóvenes (Gaztelagun) con el fin de que este sector de la población tan sensible pueda hacer frente a las consecuencias de orden económico y social que se están produciendo producto de la crisis energética y de la guerra en Ucrania.





39. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio arreta ekonomikoko programa bat ezar dezala egungo energia-krisiak ahalik eta eragin txikiena izan dezan Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen alokairuko etxebizitzaren parke publikoan, errentamendu-betebeharrei aurre egiteko zailtasunak dituzten errentariei laguntzeko.

Propuesta de resolución N° 39.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a establecer un programa de atención económica para minimizar el impacto de la actual crisis energética en el parque público de vivienda en alquiler gestionado por el Gobierno Vasco que atienda a aquellos arrendatarios con dificultades para hacer frente a sus obligaciones arrendaticias.





40. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 21. artikuluari jarraiki, zeinak ezartzen duen kontsumo-arloko agintari eskudunek kontsumitzaile edo erabiltzaileekiko merkataritza-praktika desleialak zehatu ahal izango dituztela erregaien eta erregaien horniduran beherapena aplikatzearekin zerikusia badute, eta hidrokarbuo-enpresek deskontuei buruz har ditzaketen konpromisoak betetzen direla zaindu; horretarako, ikuskapen-kanpaina bat eginez, aipatutako erregulazioa betetzen dela egiaztatzeko.

Propuesta de resolución N° 40.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, atendiendo al artículo 21 del Real Decreto-ley 6/2022, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, que establece que las autoridades competentes en materia de consumo podrán sancionar las prácticas comerciales desleales con las personas consumidoras o usuarias relacionadas con la aplicación del descuento en el suministro de carburantes y combustibles, vele por el cumplimiento de la realización efectiva de los compromisos que puedan adoptar las empresas de hidrocarburos relativos a los descuentos realizando una campaña de inspección para comprobar el cumplimiento de la citada regulación.





41. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, kontsumorako prezioen indizeak gora egin ondoren eta elikagaietara eta behar-beharrezko beste produktu batzuetan eman diren prezioen igoera orokortuen ondoren, bai eta euskal etxeen energia-kostuak gora egin ondoren ere, horrek guztiak kontsumitzaileen ahalmen ekonomikoa murriztea eta, zuzenean, kontsumoa eta merkataritza-jarduera geldiaraztea dakarrela, bai eta era berean, kontuan hartuta banaketa logistikoaren zailtasunek eragindako horniduren prezioaren igoerak eta euskal merkataritza-sektoreak jasaten dituen gastu finkoen kostuen igoerak aurrekontu-partida bat gaitzea, Ukrainan gerrak gehien kaltetutako euskal txikizkako merkataritzaren azpisektoreei laguntzeko.

Propuesta de resolución N° 41.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, tras el aumento del índice de precios al consumo y los aumentos generalizados de precios que se están trasladando a los alimentos y otros productos de primera necesidad, así como tras el aumento del costo energético de los hogares vascos, todo lo cual está suponiendo una disminución de la capacidad económica de las personas consumidoras y de manera directa una paralización del consumo y de la actividad comercial, y considerando asimismo, que el aumento del precio de los suministros derivado de las dificultades en la distribución logística, así como el aumento de los costes de los gastos fijos que soporta el sector comercial vasco, se habilite una partida presupuestaria destinada al apoyo a los subsectores del comercio minorista vasco más perjudicados por los efectos de la guerra en Ucrania.





42. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezohiko aurrekontu-partida bat izan dezala tokiko merkataritzan kontsumorako pizgarrien programa bat abian jartzeko, erakunde artekoa, familien gastu-ahalmena eta tokiko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeko, sektorearen globalizazioaren aurrean.

Propuesta de resolución N° 42.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que se disponga una partida presupuestaria extraordinaria para la puesta en marcha de un programa de incentivos al consumo en el comercio local de carácter interinstitucional, que ayude tanto a la capacidad de gasto de las familias como a la mejora de la competitividad del comercio local frente a la globalización del sector.





43. Ebazpen proposamena

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko turismo-helmuga seguru, iraunkor eta lehiakorra nahiz tokiko euskal merkataritzaren berezitasuna eta lehiakortasuna sustatzeko ekintzak mantendu eta bultzatzea.

Propuesta de resolución N° 43.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que mantenga e impulse las acciones promocionales, tanto de Euskadi como destino turístico seguro, sostenible y competitivo, como de la singularidad y competitividad del comercio local vasco.





44. Ebazpen proposamena

Euskadiko osasun-sistema, besteak beste, unibertsaltasun-, ekitate- eta elkartasun-printzipioen gainean sortu eta garatzen da. Printzipio horietan oinarrituta, gure lurraldean modu iraunkorrean edo aldi baterako bizi den pertsona orok, jatorria edozein dela ere, bermatuta dauka osasun publikorako sarbidea, gerratik ihesi Ukrainatik datozen guztiak barne. Horregatik, eta pertsona horientzako osasun-laguntza bermatuta dagoela kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarrak Osasun Sailari eskatzen dio, orain arte egin duen bezala, pertsona horiek osasun-baliabideetara iristea errazten jarrai dezala, gure osasun-zentroetako edozeinetan aldi baterako osasun-arretarako txartela lortzen lagunduz; ukrainar hizkuntza jada badagoen telefono bidezko itzulpen-zerbitzuan txertatzea, haien eta gure profesional sanitarioen arteko komunikazio egokia bermatzeko; osasun-baliabideetako eta baliabide soziosanitarioetako profesionalen artean zabaltzea osasun publikoak emandako jarraibideak, pertsona horiei lehen arreta emateko eta behar izan ditzaketen bestelako baliabide ez-sanitarioetara bideratu ahal izateko.

Propuesta de resolución N^o 44.

El sistema de salud de Euskadi se crea y desarrolla, entre otros, sobre los principios universalidad, equidad y solidaridad. En base a estos principios, toda persona, sea cual sea su origen, que resida en nuestro territorio de forma permanente o transitoriamente, tiene garantizado el acceso a la sanidad pública, lo que incluye a todas aquellas que provienen de Ucrania huyendo de la guerra. Por ello, y teniendo en cuenta que la asistencia sanitaria para estas personas está garantizada, el Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud, a que siga facilitando, como ha hecho hasta ahora, la accesibilidad de estas personas a los recursos sanitarios facilitándoles la obtención de la tarjeta de atención sanitaria temporal en cualquiera de nuestros centros de salud; incorporando el idioma ucraniano al servicio de traducción telefónico ya existente para garantizar la adecuada comunicación entre ellas y cualquiera de nuestros profesionales; difundiendo entre los y las profesionales de los recursos sanitarios y sociosanitarios las directrices facilitadas por salud pública para la primera atención de estas personas así como para poder dirigir las a otros recursos no sanitarios que puedan necesitar.

